

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Aurrekontua aldatzeko 3/2021 espedientearen hasierako onarpena

Udalbatzak 2021eko irailaren 17ko ohiko osoko bilkuran erabaki zuen hasierako onespena ematea aurrekontua aldatzeko 3/2021 espedienteari, kreditu gehigarriaren modalitatea.

Bat etorri 3/2004 Foru Arauak 34. artikuluan xedatutakoarekin, espediente hori jendaurrean jarriko da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera kontatuta, epe horretan interesa dutenek aukera izan dezaten espedientea aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkezteko.

Kreditu gehigarriaren espedientea behin betiko onetsizat emango da adierazitako epean erreklamaziorik aurkezten ez bada.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Eltziego, 2021eko irailaren 22a

Alkatea

LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE